

BERRIAK JAIO GINEN – Jon Maia Soria



Jon Maiak lan autobiografiko honetan bildu ditu **80 eta 90eko hamarkadetako bertsolaritzak bizitako eraberritze sakonaren** zergatiak, garai haren argazki pertsonal bat osatuz: bertso eskoletan trebatutako gazteen plazaratzea, bertsoa erdal eremuetan sartzea, garaikideak ziren beste kultur adierazpen batzuekin izandako harreman artistikoak eta horrela, gaur egungo bertsolaritzaren izanera iritsi arte.

Egileak berak “lehenengo bertsolari in vitroen belaunaldia” deritzonaren bizipenak eta kezkek biltzen dira liburu honetan; eta horrekin batera bertsolaritzaz haratagoko gaiak jorratzen ditu: jardun artistikoa, identitatea, tradizioa eta modernitatearen arteko talka, hizkuntzarekiko esperientzia pertsonala, politika, giza-harremanak...